

FAMILIA BARRUKO ARAZOAK KONPONTZEKO LAGUNTZA ESPEZIALIZATUA

Garrantzitsua

Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

Arriskuan dauden adingabeak dituzten familiak > Krisi edo zaugarritasun egoeran dauden familiei laguntzea

Fitxa laburtua kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio osoa.](#)

Norentzat

Arrisku-egoeran dauden kideak (adingabeak edo ez) dituzten familiak.

Kostua

Doako zerbitzua.

Baldintzak

Laguntza psikosoziala behar izatea.

Arrisku egoera.

Zertan datza?

Adingabekoak izan edo ez, zailtasunen bat duten edo krisian dauden kideak dituzten familiei laguntzeko programa bat da ([1.3 fitxa](#)). Programa honen helburua da krisi-egoera detektatzea, prebenitzea eta esku hartzea, familiako kideei lagunduz, guraso-trebetasunak, etxearen funtzionamendua, harremanak eta familia-bizikidetzak hobetu ditzaten.

Norentzat?

Adin txikikoak eta/edo laguntza behar duten familiak, kideak zaintzeko eta haiei arreta

emateko trebetasunak hobetzeko, bai eta bizikidetzeta eta etxeko dinamika hobetzeko ere.

Zenbat balio du zerbitzuak?

Doako zerbitzua da.

Zer baldintza bete behar ditut eskatzeko?

Familian kideak izatea, adingabeak edo ez, **arrisku egoeran**.

Non eska dezaket zerbitzua?

Zure auzo, udalerrri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan**.

[Kontsultatu informazio osoa](#)